



Clases de Euskara/ Euskara ikastaroak

- Euskalduntze orokorra
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, osakidetza
- 1./2./3. maila eta EGA
- Gurasoentzako ikastaroak

Soraluzeko AEK Euskaltegia

Baltegieta 2

943 75 14 34 soraluze@aek.org

943 20 13 79 eibar@aek.org

Matrikula zabalik

- Zerberri: Etorkinentzat euskara ikastaroa
- Kirola: Irailaren 20an Marraskilo Tour ibilaldia

soraluzeko
hamabostekaria **183.** alea
2008ko irailaren 12an

© pil-pilean



Kaleko baserritarrak



II. UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

Banatu zure oporrak gurekin!

EPEA: uztailaren 4tik irailaren 19ra

NORA BIDALI: pilpilean@euskalnet.net
edo 27. postakutxatila, 20590 Soraluze

SARIA: Zelai talasoterapian (Zumaia),
bi lagunentzako zirkuitua

DANBAKA)))))))

I I I . M U S I K A L E H I A K E T A

DEBABARRENA **DEBAGOIEN** ADURANGALDEA

... Durangaldeko, Debagoieneko edo Deba-
barreneko musika taldea baduzu eta ez ba-
daukazu kontratu diskografikorik indarrean.

SARIA:

Diskoaren grabazioa eta kaleratzea.

AZKEN DATA:

Irailaren 19a.

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.danbaka.com

BIDALI BEHARREKOA:

- 3 abesti original.
- Biografia laburra.
- Taldekideen izen-abizenak.
- Telefonoa eta e-posta.

NORA BIDALI:

- danbaka@danbaka.com e-postara.
- Danbaka. 132 postakutxa.
20.500-Arrasate (Gipuzkoa).
- Goienak Arrasaten, Bergaran edo
Aretxabaletan daukan egoitzatara eraman.



Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Juan Mari arraindegia

Bai Euskarari Ziurtagiria *gu ziur gaude*

“profesionalak
garelako”

“lehiakorragoak izan
nahi dugulako”

“jokaldirik onena
delako”

“elkar ulertzen
dugulako”

ziurtagiriaren elkartea



902 430026

baieuskarari.org

1.500 entitate baino gehiago

skunkfunk
people do funk



FREMAP

JEZ
SISTEMAS FERROVIARIOS



**JON BASAURI****DOMENTX UZIN**

LARREBELARDI

Jolasño bat proposatu diot Domentxi, zerrorrek ere, irakurle maitea, zailtasunik gabe egin ahal izango duzuna. Animatzen bazara, jolasaren nondik norakoa ematen dudanean irakurtzen jarraitzeari laga beharko diozu. Lehendabizi egingo dudana Elhuyar hiztegia hartzea izango da. Jarraian, zoriz, hitz bat aukeratuko dut. Begiak itxi, hatz erakuslea luzatu eta hara! “Larrebeldi” erderazko “pradera”. Hiztegitik atera dugun berba honekin ideia-asoziazio bat egingo dugu, hitzak akordatu eragiten digunarekin kate bat osatuz. Hona nirea: “Larrebeldiko etxea” telesaila etorri zait lehenik, eta bertako aktore Michael London, opil aurpegiduna. Beste telesail baten ere lan egin zuen Mikelek, “Zerurako autopistan”, jaka bakeroa jantzita, lurtarren artean Ongia egiten zuen aingeru baten papelean. “Zerurako eskailerak”, Led Zeppelin kanta hunkigarria, eta Plazentziatarra zeruan ere bai, jaietan tanborradakoak Gilaneko zubian kantatzen dutena. Zubia doctore geratu da, eta bertako zuhaizka eta loreak errespetatu dira. Errespetua maitia, yeah, yeah, yeah... Fermin Muguruzaren kanta. San Fermin, munduko festarik entzutsuenak. Hemingwayk kontatzen du Fiestan zela joan zen egun batzutarako nafarroako herrixkaren batera San ferminetako ajea pasatzera, arrantzan egitera eta lasai egotera.

P.D. Nahastu naiz pixkat, baina tira, hamen nire katea osaturik. Zer moduz heuria, Do?



Jolasño bat proposatzen dizuet

Jon Basauri

Belarri, Alberdi, barre larregi...

Domentx Uzin

Kaixo JonBa! Bueno bueno, interesgarria benetan proposatzen dostazun jokua. Beraz, hau da hitza: Larrebeldi. Hola, dana batera. Edarra berbia suertatu jatzuna atzapar azpira!

Badaka bai halako soinu poetiko bat, euskeriak askotan daukan entonaziño elegante eta mitiko hori. Berde-berdia irudikatu dot, bedarra haiziakin dantzan...

Bueno ba, hasi gaittezen jolasian. Lehenengo burura etortzen jatazenak honetxek dira: belarri, Alberdi, barre larregi, Balerdi eta errebelatzian inguruko berbaren bat, jajaja. Asoziazio askia dibertigarria da oso! Guzti honekin ipuin bat be etara leike!

Baina, benetan etorri jatan ideia potolua, gure herrixan izena da, Soraluze; larre luze bat, belardi zabal bat. Beti pentzatu izan dot, “Zein ete zan herrixari izena eman zotsan soro hori?” eta azkenian Mendiola inguruan kokatzen neban, Poligonua egon aurretiko eremu luze maldatsu hortan. Gasteizera bidian zoian bateronbatego edo... Gerora, gauzia orokortu eta Karakaten behera jausten dan mendi malda guztia bat hartuta ipiniko zotsela izena pentzatu neban. Baina izena berez, 1343. urtia baino aurreragokua bada, noiz hasiko ziran erabiltzen? Ramiron liburuari hautsa kendu biharko dotsat, ia ze diñuan. Hurrengora arte!

P.D. Ez dozu uste bestalde, ederra litzakela Zuberoako Atharratze – Sorolüzekin herrixa anaitzia? Larrepera izango zan, Larrebeldi, Larrepradera... 🌀

Goguan hartzeko

Ez daukat jolasteko gogorik denek tranpak egiten dituzten mundu honetan.

François Mauriac, idazle frantziarra.

AIÑUBIAN eta



Atxuri kalean, parketik gertu, hormatik behera sasi luzeak zintzilik daude eta dagoeneko espaloira ere iritsi dira, traba handia eginez eta ibiltariei bidea moztuz.

EGUZKI-BEGIXAN



Aurtengo Santa Ana-Santiago jaiak jende askoren ahotan ibili dira. Herrian azken urteetako onenak izan direla entzun da, baita ere parte hartzaileenak, jende asko ibili baita jai giroan alde batetik bestera. Zorionak antolatzaileei sortutako giroagatik.

Gutunak bidaltzeko, kexak edo eskerrak emateko, berriren bat kontatzeko, argazkiak bidaltzeko...

pilpilean@euskalnet.net

943 75 13 04
(utzi mezua)

Pil-pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkariako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarrea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soralueze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Iosune Egaña
Irriparrak oroimenerako

Badira honezkero bi hilabete potzuan beste aldera alde egin nebala. Plaentxiatar dexentek ezagutzen daberen herrixan berri eukitzia nahi neban, Guatemalako lurretan barrena amets bat betetzeko desiua nekan.

Maletia ilusiñoz eta zirraraz betetziatz gain, bilurrak bere tokixa hartu zeban. Gizarte honetangaltzeko bidian daren balorriak berriro topatzeko asmuakin jun nintzan, lagunekin batera, Xelako EDELAC eskolara. Guk irakasten giñuana baino gehiago jaso genduan bertako jendiegandik. Maitatua, berezixa... beste guatemalteka bat bezela sentiarazigintuen. Beren eguneroko hitz bakoitzak gure irribarria indarberitzen zeban. "Buenos días Señor Ios, ¿cómo amaneció?". Artoz gainezka dagan lur honetan paraje desberdin ugari ikusi dittugu baita: kobazuluak, sumendi aktibuak, lakuak, oiha-nak... Baina paradisu guzti honen gainetik beti gure oroimenean geldituko dana... ume horren eta beren amen musu eta besarkada leialak.

Eta bueltako maletan zer? Milaka koloredun eta sentimenduz margotutako izarrak... Ametsetan berriro be elkartuko garalakuan...

Mendi irteerak antolatuko dituzte asteburuetan



Zela animatu zarete mendi irteerak prestatzera?

Lehenago zeguan arduradunaren errelebua hartu dogu eta gogoz ekinda aurrera urten da. Seme-alaba txikixak daukaguz hemen batzen garan danok eta guriak beste ume batzuekin mendixan ibiltzia nahi badogu, horrelako ekintzak egin bihar dira.

Noiz izango dira ibilaldixak?

Udazkenari begira 4 irteera antolatu dittugu, proba moduan, hasiera baten jendiaren erantzuna zein dan ikusteko. Izan be, jua zan urtian jende gutxi animatu zanez, gauzak ez ziran bihar zan moduan urten. Udaberrikan baleike beste txango batzuk egittia be.

Zein egunetan izango dira irteerak? Eta nora juateko asmua dozue?

Txanguak domeketan izango dira eta irteera bakoitzian gradu desberdineko ibilbidiak egiteko aukeria egongo da. Lehenengua, irailan 14an izango da eta Urbixara edo Aizkorriara juatia pentsatu dogu. Irailan 28xan, Erniora egingo dogu txangua bertako jaixak dirala aprobeztatuaz, eta nahi dabena Zelatunera be jua leike. Urrian 12xan Erlo edo Xoxotera igoko gara. Urrian 26xan Soraluze inguruan egingo dogu mendi bueltia eta babajanakin bukatu.



Izen-emotia nun egin bihar da?

Iratxo goxodendan edo ikastetxian egin leike **943 75 19 37** telefonora deittuta. Gogua daukan edozeinek emon leike izena, ez da ikasle eta gurasuendako bakarrik antolatzen.

Antolakuntzan diharduen taldea bilera batean.

Ordaindu biharra egongo da?

Umiendako 2 euro eta gurasuendako 4 euro. Izena emoteko orduan ordaindu bihar da. Eguraldi txarra eginda be, irteeria egin egingo da, planak aldatu arren.

Zertzuk eruatia komeni da?

Egunosokoirteerak diranez, erropa eta oinetako praktikuak eta erosuak erabiltzia gomendatzen dogu. Aipatu nahi dogu txangora apuntatzen diran umiak arduradun batekin jua biharko dirala. ☺

**Urbixa,
Ernio eta
Xoxote aldera
juango
gara**

**TXURRUKA
JATETXEA**

Txurruka auzoa
20590 SORALUZE

T. 943 75 15 81

**HÑOS. BENITO
ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. y F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Herriko errepideak asfaltatuko dituzte datozen asteetan

Sagar Errekan, Mendiola Industrialdean eta Errekalde-Gipuzkoako Etorbidearen inguruetan asfaltoa botako dute datozen asteetan. Izartu II programaren barruan, Uda-

Ibaian kolektorea sartzeko lanak industrialdean.



lak deialdi publiko bi egin ditu; bata, Soraluzeko iparraldeko loturaren bidearen hobekuntza lanak kontratatze eta bestea herri barruko errepideak hobetzeko. Behin-behineko aurrekontuak 310.000 eta 67.000 eurokoak dira, hurrenez hurren. Gauzaten lehenengoa Txurruken aldekoa izango da.

Kolektorearen lanak, herri barruan

Etxeetako ur-fekalak Elgoibarko Apraiz araztegiara eramateko kolektore izeneko hodi bat sartzen dihardute ibaian eta irailetik aurrera herri barruan hasiko dira lanean. Lekuak eta egunak zehaztuko dituen egutegia prestatzen dihardute, herritarrei trafikoaren mozketen berri emateko. Proiektuaren berri jaso eta zalantzak adierazteko erakusketak ipiniko dute hilaren amaieran Udaletxeko Saio Aretoan. 🌱

Begirale ikastaroa martxan

Debabarreneko Udalek begirale ikastaroa antolatu dute urritik abendura bitartean eta saioak larunbatetan izango dira. Ikastaro honen prezioa 440 eurokoa da baina praktikak herrian bertan eginenez gero, ordaindutakoaren erdia itzuliko da. Matrikulazioa Udaleko euskara zerbitzuan egin behar da hilaren 15a baino lehen eta izena emateko honako telefonora deitu daiteke 943 75 30 43 Ikastaroa bukatzen dutenek titulo ofiziala eskuratuko dute.

Berdintasun teknikaria herriaren zerbitzura



Udalak Nerea Uzin plaentxiarra kontratatu du egun erdiz Soraluzeko berdintasun plana garatzeko teknikari jarduteko. Orain dela gutxi martxan jarritako proiektua bada ere, irailetik otsailera bitartean jardungo du lanean eta herritarrentzat harrera zerbitzua eskeinitiko du udalean.

Udala lursailak eskuratzen

Udalak uztailean, erabilera publikoa izango duten 3 lursail erosi ditu Atxolin inguruan. Guztira 181,84 azalerako lur-eremua bereganatu du 6.554 euroko inbertsioa eginez.

Marka berri bat herrian

Abuztuaren 28an, Xabier Tardiok beste hainbat lagunekin batera, monoziklo gaian, 57 minututan Karakatera igotzea lortu zuen. Errekor berria jarri du herrian.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Asier eta Iñakiren heriotza-
ren 7. urteurrena beteko da



Irailearen 13an Asier eta Iñakiren heriotza-aren 7. urteurrena beteko da eta honen harira hainbat ekitaldi burutuko dira. Astelehenean euskal preso politikoaren dispertsio egoera salatzen kontzentrazioa burutu zen eta larunbata, hilak 13an, goizeko 9:00etan mendi martxa eta 12:00etan omenaldia egingo zaie Karakaten. Arratsaldean berriz, pelota finalaren errebantxa jokatuko da, 19:30ean kiroldegian (ikus kiroleko agenda).

EPAko ateak zabalik

Helduen Hezkuntza Iraunkor-
reko (EPA) matrikulazio epea zabalik dago jada. Epea gaur bukatzen den arren, izena emateko aukera izango da. Baltegieta kalea 18, 1 semisotanoan edo 943 75 30 17 telefonora deituz.

Etorkinek euskaraz trebatzeko ikastaroa izango dute

Kanpoko lurraldeetatik herriratutako etorkinei hizkuntza-harrera egingo die Soraluzeko Udalak. Euskara ikastaroa antolatu du horretarako. Euskal gizartea ezagutu eta euskararen ezagutzan lehenengo urratsak ematen laguntzeko asmoa du Aisa izeneko proiektuak.

Erabilgarritasuna helburu

Egunerokoan baliagarri izango zaizkienak izango dira Aisa ikastaroan zehar ikasiko dituztenak: agurrak, zenbakiak, familia, eskola, garraioa, osasuna, kirola, merkatua... Ariketa bitartez oinarritzko ulermena eta egunerokorako hiztegia landuko dituzte.

Urritik abendura

60 ordu iraungo du ikastaroak, astean sei ordu eginez, hiru egunetan banatuta. Urrian hasi eta abenduan amaituko da. 18 euro balioko du, baina dirua berreskuratu ahal izango du ikastaroa bukatu eta %85eko asistentzia ziurtatzen duenak.

Irailaren 15a baino lehen eman behar da izena Udaletxeko Euskara Zerbitzuan, 943 75 30 43 telefono zenbakian. ☺



Euskaraz ikasten diharduten seme-alabak ulertzeko ere balioko die.

ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Lakuesta
Optika

Ikusmen arazoaren frogak
eta argibideak
Parafarmaziako produktuak

Santa Ana, 22 C. behea
20590 Soraluze
T. 943 75 30 59

Kaleko baserritarrak



Nekazaritzari buruz zerbait entzundakoan, baserria eta bertako giroa etortzen zaizkigu gogora. Badira kaletarrak izan arren nekazariak direnak ere, ortuak eta animaliak egunero zaintzen dituztenak herrigunetik gertu dauden lursail txikietan. Hona hiru testigantza.

“Sasirik eta sugerik egon ez dein garrantzitsuak dira”

JOSE BLANCO

Metalezko eskuarea hartuta hurreratu zaigu ortu barrenera Felix Paldai. Umetan gurasoei laguntzen hasi eta 75 urterekin berdin jarraitzen du: tomateak, porruak, kipulak, sagasti txikia, patatak eta bestelako barazkiak erein, zaindu eta jasotzen ditu. Antzera jarduten du Jose Blancok ere, bere txakur txikia eta txoriak lagun.

Lur takarra lantzen

Aldapatsua dute oso ortua Felixek eta Josek. “Lurra oso takarra” dela dio lehenengoak, “preparatzen oso zaila eta neketsua”. “Euriarekin lokaz-

tu egiten da eta eguzkiarekin asko gogortu”, dio bigarrenak. Txapa zatiekin lurrari eusteko modua topatu behar izan dute, euriak eta erosioak ondutako lurra eraman ez dezaten. Errepide bazterreko txapak, CDak, plastikozko botilak, iogurt potoak... denetarik birziklatzen dute.

Sasirik gabe, lasai

Ia egunero joaten dira Txara inguruan duten ortura, bakoitza berera. “*Sasirik hartuta*” zeuden lurak emankor eta “*garbi*” mantentzen dituzte, baita etxe inguruak suge eta bestelakorik gabe ere.



“Afiziño haundixa bihar da ortuko lanerako”

FELIX PALDAI

izan ditu urtetan Ikerren amamak eta orain ilobaren eskuetan utzi du. *“Beragandik hartu dot afiziñua”*. Hegaztiena berriz, aittittaren partetik. *“Aittitta Anastasiok, Motxanekuak, burrukarako oilarrak eta kanarixuak eukitzen zittuan”*.

Asti faltan, gogoa

Udalean zinegotzi, Batzar Nagusietako kide eta beste hainbat ardurarekin batera, ortura joateko tartea hartu behar izaten du Ikerrek. *“Denboraz justu ibiltzen naiz; lanera juan aurretik, goizeko 8retan juaten naiz, baina batez be asteburuetan. Astian zihar jaten emon eta asteburuetan garbittu eta denbora gehixago eskatzen daben lanak egitten dittut”*. Eguneroko lanetik *“deskonektatu”* eta lasai egoten da ortuan.

Lasaitasunerako eta *“deskargarako”* lekua izaten da baratza haientzat.

Andrak kerizpean

Baserrietan emakumeen zeregina izaten zen ortua gobernatzea (etxea eta familiaz gain), gizonak basora, sorora edo lantegira joaten ziren bitartean. Kale inguruetan gizonezkoak dira nagusi ortu eta animalia kontuetan. Felix eta Joseri emazteak tarteka etortzen zaizkie baina gehienetan bakarrik jarduten dute. Felixek dioenez, *“andria be tarteka etortzen da baina jenero ona eruaten dotsat eta ez dauka etorri biharrik”*.

Dendan eros daitezkeenak jasotzeko, zertarako hartzen duen hainbeste lan galdetuta, *“afiziño haundixa bihar da honetarako eta nik badaukat”*, erantzun digu Felixek. Garai batean dendetara ere saltzen zituen bere produktuak baina *“arduria zan, eta lehen be nahikua ardura hartuta gare”*.

Gazteak badatoz

Irrifarra arindu egin zaio ortuaren etorkizunaz berba egiterakoan. Bere ondorengoek ez dutela jarraituko dio penaturik Felixek, *“ez jakue gus-tatzen”*. Baina Josek gero eta gazte gehiagok dihardutela ortugintzan uste du. Horietako bat da Iker Aldazabal. 31 urte ditu eta ortua eta oiloak zaintzeaz gain, 25 uso mezulariren ardura hartuta dauka. Hamalau urterekin lagun batek eta biek uso espezie desberdinak ekarri eta haien zaintzeari ekin zioten. *“Gaztañerre Azokan be parte hartzen genduan”*, euskal arrazako oiloak eta usoak jendearen ezagutzarako erakusten.

Amamari erreleboa hartu dio ortuarekin. Loralde gainean txabola berde bat eta ortu sail txiki bat

“Eguneroko lanetik deskonektatzen dot usuekin eta ortuan”

IKER ALDAZABAL

Elkarri lagunduz

Inguruan beste herritar batzuek ortuak dituzte eta haien laguntza asko estimatzen du Ikerrek. *“Eskerrak bereri. Ura egin izan doste tarteka, aholkuak emon, lagundu... Oso harreman ona daukagu. Gaztia ikusten nabe eta horregaittik be lagun-tzeko gogua eukitzen dabe”*.

Etxekoak ere hasi zaizkio ingurutzten. *“Normalian bakarrik ibiltzen naiz, baina hasi dira etxequak etortzen be; ura egitten-eta laguntzen doste”*. Lagunek ez dute beregrina ulertzen. *“Zoratutana guala esaten doste baina neri gustatu egitten jata”*. ☺



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Memoria historikua berreskuratzeko premiña dakagu herrixan?

Baltazar Garzonek lege bat atera du Gerra Zibilean eta Frankismoan fusilatutakoen izenen zerrendak eskuratzeko.

JUAN JOSE CRUZ
Taxista



Nere aitona errepublikarra zan eta fusilatu egin zeben. Ordundik, ez dogu ez indemnitzaziñorik ezta dirusaririk jaso eta uste dot biharrezkua dala memoria historikua berreskuratzia hildakoentzat omenaldi moduan gutxienez.

LUPE GOMEZ
Dendaria



Bai, ados nago. Gertukua baldin bada fusilatutakua edo Gerra Zibilian hildakua, memoria historikua berreskuratzian gogua haundixagua izango da; bestela jendiari ez jako hainbeste inporta gauzak daren moduan lagatzia.

ENDIKA ZUBIZARRETA
Mekanikoa




Ideia ona iruditzen jata baina 30 urte pasa eta gero berandu dator. Gainera, nere ustez, politikuen ardurapian geratu biharko zan memoria historikua berreskuratzian ideia hau eta ez epaile baten eskuetan.

IRATI IÑURRIETA
Ikaslea



Bai, neretzat bai berreskuratu biharko zan memoria historikua. Hildakuei omenaldi moduan eta familixak sufridutako dana eta gero, eskubidia dake errekonozimendu publiko bat jasotzeko.

KOMIKIXA



JABIER ALBERDI

HARATEGI

ARTISAU ERARA

ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.

EUSKAL OKELA

CARNE DE VACUNO
DEL PAIS VASCO

ERREBAL KALEA 24
T. 943 75 19 32

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Soraluzeko Abesbatza Valentziara

Irailaren 20an Valentziako hiriburuan kontzertua emango du Ezoziko Ama Abesbatzak, bertako AAACEMA abesbatzarekin eta Granadako Bandarekin batera. La pechina izeneko aretoan abestuko dute. Elkartrukea izango denez, datorren urtean Soraluzen izango dira valentziarrak.

Dantza taldea herriz herri

Ikasturtea hasi orduko, Oñatiko eta Aretxabaletako Euskal Jaietara joateko gonbita jaso dute Urrats Dantza Taldeko gazteenek. Hilaren 14ean eta 21ean joango dira, beste herri batzuetako dantzariekin batera.

Dantzako ensaiotako ordutegia honakoa izango da: barixakuetan, 17:15etan 6-7 urteko neskek, 18:00etan 8 urtetik gorako neskek eta 19:00etan mutilak. Izena emateko epea irailaren 26an hasi eta urriaren erdialdean bukatuko da.

Musika eskolan matrikulatzeko aukera

Izena emateko lekua dago oraindik musika eskolan eta interesatuta dagoena lehenbailehen matrikulatu dadila eskatu du zuzendaritzak, arratsaldeko 15:30etatik aurrera 943 75 15 44 telefonora deituz.

Andramaixak:



Tortilla lehiaketako irabazleak Victor Ariznabarreta eta Aitor Gil izan dira. Bigarren, Pilar Gallastegi eta Santi Gonzalez eta hirugarren Unai Larreategi eta Angel Garro.

Osintxuarrak:



Jaien hasieraren berri emateko urteroko bisita egin zuten osintxuarrak Soraluzera, mozzorro eta guzti.

San Martzialak:



Jan-edana merke eta giro aparta izan ziren aurtengo San Martzialgo jaietan. Bertaratu zirenak jai giro ederraz gozatzeko aukera izan zutela aipatu dute.

Iturria: A. Aizpuru

Iturria: I. Aldazabal

TXOKO KAFETEGIA 

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Errekalde 21 T. 943 75 00 06
20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

GILA TABERNA 

GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK

GOSARIAK ETA PINTXO GOXO GOXUAK

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

 **Altzairuen fabrikazioa:**

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Disseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

“Marraskilo Tour 2007” irailaren 20an izango da

Aurtengo Soraluzekeko mendi taldeak antolatutako Marraskilo Tour mendi ibilaldia irailaren 20an izango da. 35 km ditu eta irteera plaza Berritik goizeko 6:00tan, ondoren Sagar errekatik pasatzeko eta Baskoixin amaituko da, helmuga Soraluze izanik. Ibilbidean hornidura lekuak eta partaide guztiei bazkaria eta kamiseta emango zaie.

Iazko irudia.



Izen ematea

250 plaza daude eta izen ematea irailaren 16a baino lehen egin behar da, **943 75 10 29** telefonora deituz astearte eta ostegun 19:30etatik 20:30etara edo soraluzekomenditaldea@gmail.com helbidera idatziz. Bazkideek 8 euro ordaindu beharko dute, ez bazkideek 10 eta **2101.0062.16.0121871321** kontu zenbakian sartu beharko dute dirua. Mendi taldeak jakitera eman du parte hartzeko bankuko ordainagiria beharrezkoa dela eta egunean bertan apuntatuz gero 12 euro ordaindu beharko da.

Ibilbidea:

Sagar Erreka - Topinburu - Azurtza - Gallastegitorre - Krabelinaitz - Untzeta - Soraluze - Zeleta - Argateburu - Karakate - Atxolin - Irukurutzeta - Kurutzebakar - Artzain txaboleta - Pagobedeinkatu - Ipiñarritta - San Andres - Boskoi-tti - Soraluze.

EMAITZAK

PILOTA

Xala - Laskurain 17
Mtz de Irujo - Zubieta 22

Xala - Barriola 22
Mtz de Irujo - Laskurain 17

AGENDA

FUTBOLA

Domeka 15, 17:00etan Ezozin Sora (Erreg.) - Getariako Keta

Zapatua 14, 12:00etan Ibarra Aretxabaleta - Sora (Jub.)

PILOTA

Barixakua 12, 22:00etan Legution (ETB1)
Mtz de Irujo - Goñi III
Xala - Lascurain

LEITZAKO TORNEOKO FINALA

Domeka 21, Leitzan
Jauregi - Urtasun
Beste bikote bat

ASIER ETA IÑAKIREN OMENEZ

Zapatua 13, 19:30etan kiroldegian
Txapel - I. Gallas
Marko - Argoitz

Suar- Pontxi
I. Varela - G. Bollar

San Andres igoera

Abuztuaren 9an izan zen San Andres txirrindularitza igoera. Lehena helmugara iristen Jon Urtizbera izan zen, bigarren Mikel Elorza eta hirugarren Loic Chetout; nesketan Irene San Sebastian (argazkian bera).



Iturria: M. Valero

MARE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

ZORION AGURRAK



Maren Etxabe
Abuztuan 21ian urtebete.
Zorionak eta patxo pila bat danon partez.



Josu Leturiondo García
Irailan 9xan urtebete.
Zorionak eta muxu handi-handi bat.
Lore eta etxekoan partez.



Alejandro eta Josune Movilla
Irailan 6xan 2 urte.
Zorionak eta muxu handi-handi bat!



Lur eta Larraitx
Abuztuan 14an urtebete eta piku.
Zorionak polittak!
Muxu bana!



Asier Canales Lopez
Abuztuan 19xan 4 urte.
Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez.



Mikel Ramos Alonso
Abuztuan 13an 5 urte.
Zorionak eta patxo pila bat. Etxekoan partez!



Oihana Hernandez Retolaza
Abuztuan 7xan 9 urte.
Zorionak eta muxu asko Etxekoan partez!



Iker Salaberria
Abuztuan 27xan 32 urte.
Zorionak tio Iker.
Aber noizko lehengusu bat!



Klaudio Unamuno
abuztuan 29an 65 urte eta
Maren Unamuno
irailan 3an 4 urte.
Zorionak eta muxu handi bana! Familiaren partez!




Lorenzo Ariznabarreta eta Karmen Ormazabal
Urrezko ezteiak irailan 20xan Zorionak bikote!
Jarraitu horren alaiak izaten, Familiaren partez!

jaiotakoak



AIMAR ASTIGARRAGA HERNÁNDEZ
JULEN CALDERÓN SORIA
XIKER GARRO OREGI
GORKA GASCÓN CRIADO
EDER RIVERO REVUELTA

hildakoak



MARIA MERCEDES BOLUNBURU LARRAÑAGA
JUAN ANTONIO VARELA LOYOLA
LUIS GURRUTXAGA ARAMENDI
CESAR CELESTINO MARTINEZ MARTÍN
CELSO AZKONA ALVAREZ
ANUNCIACIÓN YANIZ GARTZIA
JACINTO BRUÑA DEL ARCO
CAMILO RIVAS CABO

IRAGARKIAK

Umiak zaintzeko prest 14:00etatik aurrera
Haur hezkuntza ikasten dihardut
659 29 75 17 (Irati)

LEHIAKETA

► Zein ibiltzen zan uretako bizikletakin ibaixan?

- 1- Nicomedes Bollain
- 2- Piston Aguazila
- 3- Paco Vargas



► **Saria:**
"Euskaraz Bai!" sudadera bat

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Irabazlea:**
Begoña Txurruka

► **Pazientziak...**

Pasta biribil gozuak ziran. Ixa janari-denda danetan saltzen zittuen herrixan. Italiarregandik jasotako errezetia zan eta berez "piacenza" izena zeuken.



ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: J.M. Berrueta

1983KO UHOLDEAK



Iturria: J.M. Berrueta